

hoy escribe

J.L. ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» | Idazlea

Damua garaiz

Unibertsitari vasconavarro ezagun batzuen gorabeherak eta espanietuek jakina, garrantzi handiegirik ez dute. Anti-euskalduntasunaren errepikapen hutsa dira funtsean.

Baina irakurketa semiotikoa merezi dute agian. Zer dela-ta harropuzkeria eta irain uholde hori orain?

Eta hemen borroka antzekoen kondaira gerta dakiguke balios eta argi iurri. Eire-koa, adibidez.

Eire Estatua, Irlandaren zatiketaren gainean eraikia, 1922an sortu zen; seguitan eiretarren arteko gerla hitza hasi zelarik: Eire-ren zatiketaren gainean ezarritako legetasuna onartu zutenak, batetik; eta britaindarrekin eskuz esku sortutako mini-Irlanda «domestikatu» onartu ez zutenak, bestetik.

Gauza ezaguna denez, Eire batua eta benetan askatua defenditzen zutenek galdutuz 1922-1923ko gerrate hura.

Hiru mende laurden pasa ondoren, Eire-ren zatiketaren ondorioez mintza daitezke serioiki. Nazio-hizkuntza erabat galduta, uhar-tearen batasuna mamitu gabe, ekonomikoki inolako

Ez gaude horretan. Ez horixe! Baina niri bederen, sasi-intelektual gor eta quisling-en hizkeraz eta projektuek, Eireko tragedia gogorazten didate

askatasunik gabe, nekez izkuta daitezke 1916ko matxinada miresgarriaren ondoko porrot kutsua.

Baina berrogei bat urte joan ziren eiretarrek egoeraz jabetzeko eta erdibiketaren errakuntza aitortzen hasteko.

Aita Hullacháin frantsiskotararen kasoa izan daitezke seinalerik garbiena. Hizkuntzaren pizkunde ofizial fatamua gezurra zela somaturik, Buntús Gaeilge mugimendua sortu zen. Beronen helburua: irlandera mintzatu ahal bezala bildu (oraindik posible zen), eta instituzioa ofizialetatik at (1962az ari gara) nazio-hizkuntza benetan bultzatzea.

Uhin hartan sartu behar da 1963ko Txosten «gorria» (ez gara funts ezkertarrak mintzo, inkesta famatuaren azalaren kolorez baizik). Ia-ia 300 «aholk» eman zituen hizkuntz Batzordeak.

1964an 400.000 sinadura bildu ziren uhartzen barrena hizkuntz pizkundeari bultzada berri bat emateko eskatzuz.

1966an, horretara, 1916ko Bazkoko Matxinada tragikoaren 50. urtemuga; Eire Errepublikak ofiziala ospatzera zihoalarik, giroa bero-bero zegoen zatiketaren kontrako abertzaleen aldetik. Eta IRA hasi zen ekintzak egiten; denek Eireko gorabehera «konpondu»tzat ematen zutelarik. Fishman famatuaren bisita ere (Huallachain-en alde ausarki paratua) urte haietan gertatu zen: 1968.

Hots, eta hauxe da gaurko honetan oroitarazi nahi nukeena: 1966an, hain zuzen, Errepublikak bere L. urtemuga «ospatu» behar zuten mementuan, eta zatiketa onartzen ez zuten abertzaleek burua altxatzen hasten zirelarik... «Language Freedom Movement» izeneko kinta-kolumnista talde bat agertu zen. «Hizkuntz Askatasunaren aldeko Mugimendua», hitzez hitz.

Joera ingeleszale honen hazia aspaldian erein zen. O'Connell «patriarka» ultra-

karkaren balentriak aurreko mendekoak ziren; eta James Joyce-ren ekarpena ere (garrantzitsua literatur mailan, baina Londresko hizkuntz politikaren barruan bete-betean) atzean zegoen.

Odol isurketa dextene abiatua zegoenean, beraz, bazegoen Irlanda «Askatua», askotan aparato ofizialeko buruzagiengandik ez urrun, gaeliko nazionalaren kontrako mogimendu azkar bat.

Londonderry-ko hilketa izugarria (13 irlandar hilik 1972ko urtarrilean) giro horretan gertatu zen. Eta IRAko arrapostu gogorra ere (22 bonba-leherketa Belfasten gau bakar batean: 1972-VII-21an, 9 hildako) orduko da.

Dublinek 1973an ofizialki eman zuten «konpondu»tzat gaelikoaren arazoa: baxilergoan gaelikozko azterketa (idatzia bederen!) pasa-baharra, kitto. Elebitasuna: nahi duenak, ikas beza. Eta irlandar guztiak, ingelesez.

Ez gaude horretan. Ez horixe!

Baina niri bederen, sasi-intelektual gor eta quisling-en hizkeraz eta projektuek, Eireko tragedia gogorazten didate.

nire txanda

Inexistencia de la idea de patria

Lo mismo que el judío para Sartre, era una invención del racista, la patria es un invento del fascista.

En efecto la patria es un universal, y los universales, como diría Max Striner, no existen: existe sólo el yo, como negación de las categorías. Del mismo modo existe sólo la banalidad de la percepción como negación de la filosofía, y por ello, contra lo que dijeron Hegel y Marx, la filosofía nunca es real.

Existe sólo el egoísmo, como negación de la utopía, y detrás de las máscaras de lenguaje wittgensteinianas, el sórdido afán de la persona (en latín, máscara).

Ahora bien, cuando la barbarie se convierte en ideología, da nacimiento al fascismo o al racismo, y no hay nadie a quien no le atraiga la barbarie.

Ahora bien, el yo también es una idea fascista, si hacemos caso a la opinión de Borges sobre el libro de Carlyle "De los héroes".

La épica sin embargo, no es siempre fascista, como prueba el film "Novecento"; también la bandera roja puede ser una idea que libere a la masa del sueño, o que la haga soñar para algo, para convertir los sueños en realidad: como decían los surrealistas «parents, racontez vos rêves a vos enfants».

Con lo que quiero decir que la idea a veces civiliza la realidad, inclusive la idea cristiana, cuya pesadilla no siempre es reaccionaria, como prueba el asesinato de Savonarola, y de algún hereje medieval.

Así pues, que el marxismo cumpla su promesa, y se hará entonces un ideal verdadero, y no una máscara de lenguaje.



Leopoldo M. PANERO
Escritor

hemeroteca

Enbata

Argiak eta itzalak
Sar hitza

(...) Moraliki, demokrazia hutsaren mailan, hauteskunde hauek ontzat eman badaitezke ere ez dezakegu ahanzt Hexagonian menperaturik dauden populatu tipiek ez dutela beren burua aparazi eta haien marka deusezaren heinekoa izan dela. Salbuespen bat haatik, Martikan deputatu independentista bat hautetsia izan baita. Hau berri ona! Guk abertzaleek, uste baino boz gehiago bildu dugu baina ez gara horraino helduak.

Egunkaria

Kontinentena eta planetaren
Jon Sarasua

Abiadura handiko Y grekoari eta Eibar-Gasteiz autopistari bultzada emateko erabaki onen dute Madriren aste honetan. Kontu honek bi ikuspegi kontinentalak eta ikuspegi planetarioa. Ikuspegi kontinentalak

esan nahi du Europa edo mendebalde aberatsa hartzea erreferentziazat. Ikuspegi planetarioak, aldiz, angulua zabalzen du. Ariketa polita da.

Ikuspegi kontinentalak helburu batzuk jartzen dizkigu: hazkunde ekonomiko, garapena, Europako trenean atzera ez gelditzea, horretarako homologatzea... eta mito horien bueltan funtzionatzen du gizarte osoak. Adibidez, familia bakoitzak auto bana, gero eta hobea, edukitzea aurrerapen normalizat jotzen da. Ikuspegi planetarioak dena hankaz gora jartzen du. Munduan materialki ezinezkoa da familia bakoitzak kotxe bana izatea, ez dago aski burdina eta erregairik, planeta lehertuko litzateke. Beraz, mendebaldean familia bakoitzak kotxe bana izateko modu bakarra munduko gehiengoa autorik gabe egotea da. Askizkoak dago (ekologikoki, sozialki, giza mailan) garapen erdua itzelezko gezurra dela, kontua mendebaldeak bere pribilegioari ahal duen luzaroen eustea dela. Kuriosoa dena da ikuspegi kontinentalaren mifoei oraindik zer indar duten gure klase politikoan.

Bi ikuspegiaren arteko lehiari so egitea polita da. Adibidez, kulturaren Erreferentzia kultu eta

José Luis Martín



José Luis Martín en "El Periódico", 15-6-97.

moderno bakartzat mendebaldeak hartzea euskal kultura homologazio konplexura dararama. Hala, gauza patetikoak egin dira herri honetan. Aitzitik, pentsamendu planetario batean kulturak beste arnasa bat hartzen du: ez gara hain normalak, norma bakarra ez baitago iparraldean. Eta edozein kasutan, normala izatea da planetako norma. Beste adibide bat jartzearen, eliza katolikoaren inguruan sortzen ari diren teologia desberdinek ere lehia hori ageri dute: teologiarren eurozentrismoa (mende-

balentrismoa) eta hirugarren munduko zenbait teologiarren mamitzea.

Lehian, jakina, ez dago kolorerik. Pentsamendu kontinentalak nagusi da, hezurerraino sartua dugu. Izan ere, pentsamendu kontinentalak iruzur bat dauka: ikuspegi unibertsal bezala aurkezten da. Pentsamendu kontinentalen dagoenak uste du planeta ikusten duela, baina ez du ikusten. Mendebaldeko eskemak ikusten ditu planetan ere.

Y gero eta Eibar-Gasteiz autopistara itzuliz, egin egingo

dira, pentsamendu kontinentalaren argudiaketa tipikoa erabiliz. Iruditzen zait hemendik 80 urtera tamalgarriztat joko direla desarrollismoaren inertziaz egindako azken azpiegitura burugabe hauek. Ikuspegi lokal batetik bien zentzugabekeria argi samar dago. Ikuspegi planetario batetik, argioki: planeta-etika batek eskatzen duenaren kontrako norabidean doaz. Ikuspegi planetarioak eta lokalak bat egin dezakete kasu honetan. Kasualitatez?

El Mundo

20 años de los que sentirse orgullosos
Editorial

(...) Vivimos en un país tolerante y libre, en el que nadie tiene nada que temer si alguien llama a su puerta de madrugada. Será probablemente el lechero, como decía Churchill. Y es que las democracias pueden ser aburridas —que no lo son—, pero tienen otras muchas ventajas que los ciudadanos hemos empezado a descubrir.

El País Semanal

Felipe González
Camilo Valdecantos

[20 años de democracia] Olía a ganador desde el comienzo, pero la ciudadanía prefirió que antes le lir pisen lo más indecoroso del franquismo. Lo singular es que los suyos andaban en la estratosfera: república, autogestión, autodeterminación... todo lo imposible cabía en aquel PSOE. Como tantos líderes de talla histórica, descargó un fogonazo de transformismo que acabó por darle el poder.